BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

4704

EBAZPENA, 2014ko urriaren 16koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, Bilboko metropoli-trenbidean Urdulizko trenbide-pasagunea kentzeko eraikuntza-proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzeko dena.

Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2014ko irailaren 18ko Ebazpenaren bidez, Bilboko metropoli-trenbidean Urdulizko trenbide-pasagunea kentzeko eraikuntza-proiektua onartu zen.

Bilboko Metroaren 1. lineako trenbide-pasagunea, Urduliz herrian, 22+254 KPan dago eta hor Bilbotik Plentziara doan errepidearekiko bidegurutzea dago. Errepide hori egun Urdulizko Aita Gotzon kalea da.

Trenbide Sektorearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretuko 18. artikuluak ezarritakoari jarraituz, trenbide-pasagune hori kendu beharra dago. Jarduketa hori Bilbo Metropolitarreko eskualde egiturako trenbide-sareari buruzko azterlanean dago jasota (2002ko otsaila); azterlan horretan, jarduketa-eskemetan Bilboko metropoli-trenbidearen 1. linean Urduliz eta Plentzia arteko trazadura hobetzea planteatzen da, zehazki, Urduliz eta Plentzia herrien artean, trenbidea bikoiztea eta trenbide-pasagune hori kentzea.

Horren ondorioz, 2005eko otsailaren 22an, Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailak behin betiko onartu zuen honako hau: Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Arloko Lurralde Planaren aldaketa, Bilbo Metropolitarreko eskualdeko trenbidea ordenatzeari dagokionez.

Proiektu horren barnekoak ziren, batetik, trenbidea lurperatzeko egin beharreko obren definizioa eta, bestetik, ebazpen bidez, Garraio Azpiegituren zuzendariak onartutako informazio-azterlanaren garapena (2014ko otsailaren 25eko EHAA), baita hiri inguruan txertatzeko eta geroko Urduliz-Plentzia banaketarekin bateragarri izateko obrak ere.

Trenbide-zati hori estalita geratuko litzateke eta guztira 543 metro luze izango litzateke, barruan Urdulizko geltokia gordeta eta lurperatuta. Horrela, geltokiaren estalkia trenbidearen alde bietan dauden eraikuntzetara egokituko litzateke. Geltoki berriko atartean sartzeko, «fosterito» deritzona egongo da, 50 metroko azaleran, egungo geltokiaren hego-mendebaldean. Eraikin hori eraitsi egingo da.

Proiektuaren eraginpeko lurrak eskuratu eta ondasunak eta eskubideak behar bezala kudeatu ahal izateko, ondasun horiek guztiak identifikatzeko zerrenda xehatu bat eta desjabetzapenen eranskineko partzela-planoak jasotzen dira proiektuan.

Organo honek eskumena dauka Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren trenbide-azpiegiturako lanak gauzatzeko nahitaezko desjabetze-prozeduraren izapideak egiteko eta ebazpena emateko, halaxe ezarrita baitago Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 14.1.c) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren 13.1.g) artikuluan. Azken dekretu hori, bestalde, martxoaren 1eko 8/2013 Dekretuaren eta, bigarren aldiz, abenduaren 2ko 34/2013 Dekretuaren bidez aldatu zen.

Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluaren arabera, trenbide-linea berriak jartzeko edo lehendik daudenak handitu edo zabaltzeko proiektuak onartzen direnean, eta, onespen horretan okupatu beharreko ondasunak zehaztuta daudenean, onespenak berekin dakar –nahitaezko desjabetzearen eskakizunen eta prozeduraren ondorioetarako– proiektua bera eta horren gaineko aldaketak herri-onurakotzat edo gizarte-interesekotzat direla adieraztea, eta proiektuarekin batera doan zerrendan jasotako ondasun eta eskubideak lehenbailehen okupatu behar direla aitortzea.

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizituki berekin dakarren arren proiektuaren eraginpeko ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluek xedatzen dute ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrean jarri behar dela, alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izateko, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zein diren ondo zehazteko.

Beraz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Bilboko metropoli-trenbidean Urdulizko trenbide-pasagunea kentzeko eraikuntza-proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea, ebazpen hau azken aldiz argitaratzen den egunaren biharamunetik eta hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkez daitezen, okerrik baldin badago zuzentzeko; hala xedatzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 19.2 artikuluak eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Aipatu epean, halaber, Urdulizko eta Sopelako udaletxeetako iragarki-oholetan jarriko da eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda.

Eta hala jakinarazten da, guztiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 16a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA ALMUDENA RUIZ DE ANGULO DEL CAMPO.

BILBOKO METROPOLI-TRENBIDEAN URDULIZKO TRENBIDE-PASAGUNEA KENTZEKO ERAIKUNTZA-PROIEKTUA

SOPELAKO UDAL-MUGARTEA

Lursail zk.	Mota	Katastroko erreferentzia			Jabea eta helbidea	Eragin mota		
		Poligonoa	Multzoa	Partzela		Behin betiko okupazioa (m^2)	Aldi baterako okupazioa (m^2)	Zortasuneko okupazioa (m^2)
MT-01	Trenbidea	012	04	003	Euskal Autonomia Erkidegoa		13.172,20	

URDULIZKO UDAL-MUGARTEA

Lursail zk.	Mota	Katastroko erreferentzia			Jabea eta helbidea	Eragin mota		
		Poligonoa	Multzoa	Partzela		Behin betiko okupazioa (m^2)	Aldi baterako okupazioa (m^2)	Zortasuneko okupazioa (m^2)
OT-01	Lurra	011	01	002	Maria Lejarreta		671,35	
OT-02	Lurra	011	01	003	Ayo Ugarte, Bartolome		5,11	
OT-03	Lurra	011	01	001	Urdulizko Industrialdea, S.A.		1.174,27	
OT-04	Lurra	011	01	009	Hormaza Munarriz, Jose Ramon		253,54	
OT-O5	Lurra	011	01	010	Ansoleaga Zabala, M.ª Angeles eta beste batzuk		90,83	
OT-06 OTS-01	Lurra	009	01	001	Lointek ingeniaritza eta muntaketa-teknikak		546,35	182,19

Lursail zk.	Mota	Katastroko erreferentzia			Jabea eta helbidea	Eragin mota		
		Poligonoa	Multzoa	Partzela		Behin betiko okupazioa (m^2)	Aldi baterako okupazioa (m^2)	Zortasuneko okupazioa (m^2)
OP-01 OT-07 OTS-02	Lurra	011	01	016	Criteria Caixa Holding, S.A.	10,81	10,08	4,08
OP-02 OT-08 OTS-03	Lurra	011	04	017	Unibaso Arambalza, Justo	41,56	273,60	41,69
OT-09	Lurra	011	04	002	Bilbao Menchaca, Jose Antonio		223,58	
OT-10	Lurra	011	04	001	Unibaso Arambalza, Justo		157,63	
OP-03 OT-11 OTS-04	Lurra	011	04	015	Criteria Caixa Holding, S.A.	52,29	294,75	89,25
OP-04 OT-12 OTS-05	Lurra	011	04	004	Ines Zarraga	4,85	93,20	9,35
OT-14 OTS-07	Lurra	009	02	001	Gondra Urrutia, Jose Maria		245,64	30,00
OT-15 OTS-08	Lurra	009	02	002	Bilbao Menchaca, Jose Antonio		215,92	23,21
OT-16 OTS-09	Lurra	009	01	002	Mecaner, S.A.		188,34	100,12
OP-05 OT-17 OTS-10	Lurra	011	05	001	Criteria Caixa Holding, S.A.	17,86	341,47	119,04
OT-18 OTS-11	Lurra	007	01	001	Estancona Retolaza, Dominga		20,10	6,49
OT-19 OTS-12	Lurra	001	06	002	Guibelondo Abarrategui, Juan eta Guibelondo Asla, Maria Begoña		2,08	0,59
OT-20º OTS-13	Lurra	001	06	001	Guibelondo Gorordo, Juan Maria		16,80	8,87
OT-21 OTS-14	Lurra	001	08	001	EAJ-PNV Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco		31,13	15,29
OT-22 OTS-15	Lurra	001	05	005	Felipe Bilbao, Maria		214,31	12,46
OP-06 OT-23 OTS-16	Lurra	002	---	036	Juana Orozko Urrutia	315,09	168,13	6,45
OP-07	Lurra	002	---	131	Guibelondo Abarrategui, Juan Joseren jaraunsleak	4,81		

Lursail zk.	Mota	Katastroko erreferentzia			Jabea eta helbidea	Eragin mota		
		Poligonoa	Multzoa	Partzela		Behin betiko okupazioa (m^2)	Aldi baterako okupazioa (m^2)	Zortasuneko okupazioa (m^2)
MT-02 MTS-01	Kalea	---	---	---	Urdulizko Udala		2.160,44	1.808,74
MT-03 MTS-02	Geltokia	009	03	001	Euskal Trenbide Sarea		32,16	565,57
MT-O4 MTS-03	Geltokia	001	06	003	Euskal Autonomia Erkidegoa		69,56	424,75